



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

Martxoaren 14tik 23ra bitartean 2017ko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea

Martxoaren 14tik 23ra bitartean Getxon egingo da 2017ko aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasea, onartutako proiektuak lehenesteko, hain zuzen. Herritarrek lehenengo fasean teknikoki eta ekonomikoki aztertutako eta hautatutako zortzi proiektu baloratu beharko dituzte.

Orain, herritarrek hautatutako proiektu **GUZTIAK** baloratu eta puntuatu beharko dituzte (euren ustez, garrantziaren arabera):

- Portu Zaharraren eta Genaratxu eta Usategiren arteko loturaren irisgarritasuna hobetzea.
- Aiboa Metro geltokiko sarbidearen segurtasuna hobetzea (Alangoko igogailutik Arkotxa kaleraino).
- Zahartze aktiboari lotutako jarduerak egitea.
- Txakurren gorozkiak kontrolatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak egitea.
- Enpresei eta pertsona ekintzaileei laguntzak ematea.
- Formatu txikiko kontzertuak egitea, udan kanpoaldean, plazetan edo lorategietan.
- Seinaleak jartzea Getxon turismoa sustatzeko.
- Beka sortzailea Europako gazteentzat, udalerrira bizitzera etorri eta Getxo eszenatokia duten testuak idatz ditzaten.

Amaia Agirre Komunikazio eta Herritarren Partaidetzarako zinegotziak oso positiboki baloratu du herritarrek prozesu honetan adierazitako jarrera. *"Joan den urtarrilean egindako lehenengo fasean"*, esan du Amaia Agirrek, *"Getxoko auzokideen 449 galdetegi jaso ziren. Prozesuarekin bat egiten zuten ekarpenak eta iradokizunak teknikoki eta ekonomikoki aztertu ziren eta, azkenik,*



Getxo

bizi ezazu

erabaki zen zeintzuk sar zitezkeen 2017ko aurrekontuetan. Zortzi proiektu dira, bideragarriak, ekonomikoko jasagarriak, auzo ezberdinen arteko oreka erakusten dutenak eta getxotar guztien onurarako izango direnak. Bigarren fase honetatik irtengo dira azkenean, 2017ko aurrekontu parte-hartzaileen diru-saileko milioi bat euroren kontura egingo direnak”.

Onartu ez ziren proposamenen arrazoiak izan ziren: teknikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez izatea, Legealdi Planean jasota ez egotea, udal arloen planetan lehenetsitakoekin harremanik ez izatea edo etorkizunean egingo diren beste prozesu parte-hartzaileetan aurreikusita egotea.

Nola parte hartu

Honela parte hartu ahal izango da:

1. Inprimakiak betez eta entregatuz Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan erabilgarri jarriko diren kutxetan.
2. Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoko honetara bidaliz: gobernuirekia@getxo.eus
3. Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez: www.getxo.eus/gobiernoabierto
4. Inprimakia betez eta sartuz Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan horretarako jarriko diren postontzietan.
5. Informatzeko jarriko diren karpetara hurbilduz hurrengo egunetan: martxoak 16 Algortako Geltokia plazan eta martxoak 17 Areetako Geltokitik hurbil dagoen plazan. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

*** Hautatutako proposamenen eta horiek egiteko aurrekontuaren aurreikuspenaren koadroa erantsita.**

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.